



Samia

Iraultza isila

Duela urte asko, samien herri indigena nahi bezala bizi zen eskandinaviar penintsularen iparraldean. Naturarekin bat, bizia elur-oreinen zaintza eta arrantzaren inguruan egiten zuten gehienbat. Lurrak emandakoari ahalik eta probetxurik gehien atereaz, beren sinesmenekin lasai bizi ziren. Baina hasieran kristautasunaren izenean eta ondoren herritarren berdintasunarenean, ia desagertzearaino jazarri zituzten. Norvegia, Suedia, Finlandia eta Errusiak beren lurraldea lautuan zatitu ondoren izan zen hori. Samiek hizkuntza eta kultura bizirik mantentzea lortu bazuten ere, egindako kalteak agerikoak dira. Egun, mantso-mantso, beren kultura berreraikitzen ari dira etorkizuna ziurtatzeko.

Testua eta argazkiak:

LANDER ARBELAITZ

EGUERDIKO 13:00ETARAko ilundu du eta kanpoan tenperatura zero azpitik berrogei gradukoa da. Abenduaren lehenean gainditu zuen azken aldiz eguzkiak horizontearen marra, eta ordutik, zerua bi ordu baino gutxiagoz argitzen du egunero. Kautokeinoko herriko 3.000 biztanle, Norvegiako ipar ekialdean— bi supermerkatuetako batean hamar bat bizilagun ari dira erosketak egiten. Bi emakume berriekin ari dira apalen artean, baina ez norvegiaraz. Samiak dira eta *gákti* izeneko jantzi koloretsuak daramatzate gainean. Hainbeste mendez hotzetik babestu dituen jantzia oraindik ere erabiltzen du hainbatek; XXI. mendean samien kultura bizirik denaren seinale.

Kautokeinon, 12 urteko Henrik gazteak egunero elurak hartutako errepidean egiten du eskolarako bidea. Gaur beroki beltz lodi bat darama eta kolore bereko txapelaren azpian ezkututzen du erdi-lo aurpegia. Eskolara joatea ez du gustuko, baina eskola guztiak bere hizkuntzan jasotzen ditu. Bere aurrekoen borrokari esker lortutako sami eskolaren lehen belaunaldi-ko ikaslea da.

Dendako emakumeak eta Henrik kultura beraren parte dira, baina bi belaunaldi. Haiek

Ezkerreko irudian, bi emakume Kautokeinoko supermerkatuan, *gákti* jantzi tradizionalarekin. Arropa ikusita sami bakoitza zehazki nongoa den jakin dezakete, eta garai batean, baita zein familiakoa zen ere.

Sami Legebiltzarra eskumen
administratiboak irabazten joan da
etengabe eta egun hizkuntza, kultura
eta ondare historikoen garapen eta
babeserako ardura du

kultura arrotzen zapalkuntza sufritu dute eta haurra oraindik gazteegia da gertatutakoa ulertzeko, zer edo zer entzuna badu ere. Batzuen indarra esperientzia da, besteara berriz, etorkizuna. Bi belaunaldi hauen erkatzea sami kulturak bizi duen trantsizioaren adibide garbia da. Hainbat web gune eta libururen arabera, samien kopurua 70.000 eta 100.000 artekoa da. Sami Institutuko Estatistika Sailak, ordea, datua ez du ontzat hartzen, hau kalkulatzeko baliabiderik ez dagoela argudiatuta. Samien bizilekua den Norvegia, Suedia, Finlandia eta Errusiaren arteko lurraldeari Saapmi deitzen diote. Azken urteetan, sami parlamentuen, eskolen eta samierazko hedabideen sorrerarekin, beren kultura babesteko urrats handiak eman dituzte.

Parlamentuak, kulturaren babesle

Sami herriaren historian izen bat idatzirik geldituko bada, hori Ole Henrik Maggarena da. Norvegiako Sami Legebiltzarreko lehen lehendakari izan zen zortzi urtez eta ondoren, Nazio Batuetako Indigenen Gaietarako Foro Iraunkorreko lehendakari izendatu zuten. Egun, sami hizkuntzako irakasle da Kautokeinoko Sami Unibertsitate Eskolan. 1989an hartutako argazki batean, Norvegiako Errege Olav V.aren ondoan ageri da, *gákti* jantzita. Norvegiako erregea Karasjok herrira Sami Legebiltzarrari —*Sámediggi* samieraz— hasiera ematera joan zen egunean hartuta-



Samien bizileku den Norvegia, Suedia, Finlandia eta Errusiaren arteko lurraldeari Saapmi deitzen diote.

kuntzaren inguruko lanak sustatuko ditugu. Baliabide gehiago jarriko ditugu, hizkuntzaren erabiltzailea belaunaldirik zaharrena delako eta hau zahartzen doan neurrian, gure haurrek ikasiko dutela ziurtatu beharra dugu”.

Bere sorreratik, Norvegiako herri indigena honen legebiltzarra eskumen administrati- boak irabazten joan da etengabe, gobernu zentrala galtzen joan den heinean. Gaur egun, *Sámediggia* du hizkuntza, kultura eta ondare historikoen garapen eta babeserako ardura. Gainera, Sami Hezkuntza Kontseiluak Norvegiako Hezkuntza Ministerioaren funtzioak bereganatu ditu. Sami Legebiltzarrak hizkuntzaren

koa da irudia. “Nire bizitzako egunik zoriontsuena bezala gogoratzen dut; Norvegiako erregeak sami herriaren alde otoitz egin zuen eguna”. Bere iritziz, irudia argazki bat baino askoz gehiago da, sami herriaren aurrerapen seinale.

Sámediggia Norvegia bizi diren samien instituzio politikorik gorena da. Badira sami legebiltzarrak Suedian eta Finlandian ere, eta nahiz eta zenbait gai aztertzeke nazioarteko elkarlana izan, erakunde autonomoak dira. Egungo Norvegiako sami lehendakari Aili Keskitaloren hitzetan, legebiltzarrak sami kultura sustatzeko erantzukizuna du, hainbat ekintzen bidez. Lehena, diru laguntzen banaketa da; bigarrena, bitartekari aritzeaz gain, kultura arloko erakundeen arteko elkarlana erraztea: hala nola, museo eta sami antzerkiaren artekoa. Hurrengo urteetarako ere bada lanik eta helburuak argi ditu. “Gure hiz-

irakaspena eta ikerketa ziurtatu behar ditu, eta diru kopuru jakin bat du horretarako. Guztira, Norvegiako Gobernuak 32 milioi euro eman zizkion 2006 urterako.

Eskolak, etorkizuna hurbilduz

Henrikek lagun asko ditu eskolan. Irakasgai guz-


tiak samieraz ikasten dituzten arren, norvegiarrez oso ongi daki, sami gazteek hiru hizkuntza guztiz menpe- ratzen baitituzte —ingelesa ere eskolan ikasten dute—. Ikasgelako paretan Saapmiko mapa dute, ikasleek margo- tua. Bertan, kolore desberdinez ageri da samiak bizi diren gun- e bakoitza, eta baita leku horietako jantzien aldaerak ere. Errusiako Kola penintsulan bizi diren samiak edo Finlandia aldeko mugako bizilagunak nola janzten diren ikasten dute eskolan. Arropa ikusita jakin dezakete nongoa den sami bakoitza, eta garai batean, baita zein

Urtegitik eskubideen aldarrikapenera

Norvegiako Gobernuak plan hidroelektriko berria Alta eta Kautokeino arteko ibai nagusiko urtegi batean oinarrituko zuela azaldu zuen 1978an. Hainbat herri hustu egin beharko zituzten, uraren mailaren azpian geratuko baitziren. Berehalakoak izan ziren inguru haietako herritarren ezetza, protesta deialdiak eta urtegiaren aurkako batzordeen sorrera. Elur-oreinen migrazioa eta izokin basatiaren arrantza guztiz kaltetuko zituela zioten samiak. Lanak hastear zirela, desobedientzia zibilari ekin zioten eta biztanle batzuk makin- en aurrean eseri ziren bitartean, beste batzuek Osloko parlamen- tuaren aurrean gose grebari ekin zioten.

Hasiera batean arazo ekologikoa zena samien eskubideen aldarrikapen bihurtu zen. Handik gutxira, Norvegiako Gobernuak urtegiaren kokalekua aldatu eta txikiagoa egitea proposatu zuen, baina lanak hastear zirela, kateatuta zeuden ehun bat manifestari atxilotu zituzten. Gauza ziurra ez den arren, sami batzuek diote IRAk armak eskaini zizkiela urtegiaren aurka egiteko, eta bonba bat zartarazi bazuten ere, armen bideari uko egin zioten samiak. Azkenean urtegia egin zuten, baina samien eskubide aldarrikape- na hurrengo urteetako parlamentuko afera nagusia izan zen.

Aili Keskitalo, Sami Legebiltzarreko lehendakaria
“Ez dut ikusten zergatik beharko genukeen estatu bat”



Larunbat arratsaldea izan arren, bere bulegoan lanean harrapatu dugu Aili Keskitalo. Lehen emakumea da Norvegiako Sami Legebiltzarreko lehendakaritzan eta ilusioz beterik aurkitu dugu.

Zein da Sami Legebiltzarren papera bertako kultura bultzatzeko?

Funtzio ugari ditugu. Norvegiako Gobernuak ematen digun dirua banatu behar dugu eta aldi berean sami herriaren beharrak helarazi behar dizkiogu. Sami Legebiltzarren eta kultura arloko erakundeen arteko elkarlana bultzatzen dugu eta baita Finlandiako eta Suediako sami parlamentuekin eta Errusiako samiekin ere.

Sami Legebiltzarrak orain gutxi sinatu berri du kontsulta ituna.

Nik uste autodeterminaziorako bidean kontsulta ituna aurrerapauso handia izan dela. Orain posizio hobea ematen digu Norvegiako Gobernuak hartzen dituen erabakietan eragina izateko. Hala ere, oraindik hau nola erabili aztertzen ari gara, norvegiar burokrazia ez baitago ohituta kontsulta egitera. “Oso ondo, esan behar zenutena entzun dugu eta orain guk erabakiko dugu zer egin ondoko gelan, agur”, esatea gustatuko litzaieke, baina kontsulta itunaren funtsa elkarriketa da eta adosten saiatzea. Ez da negoziazioa, baina gertuago dago.

Zer nolako harremana duzue Norvegiako Gobernuarekin?

Nik uste Norvegiako Gobernuak elkarlanerako prest dagoela, nahiz eta ez garen beti adostasunera iristen. Bereziki baliabide naturalen kudeaketa eta eskubidean izaten ditugu desadostasunak. Norvegia ez da munduan indigenen eskubideak errespetatzeko orduan onena, baina beste politika arloetan harreman oso ona dugu.

Sami herriak subiranotasun gehiago nahi al du?

Kasu batzuetan bai. Baliabide naturalen eta lurraren kudeaketan behintzat bai. Adibidez, animalia basatiak ehiatzeari zenbat eta noiz ordaindu guk erabakitzea. Autodeterminazioa ez da hain erraza. Gainontzeko herrietan bezala, ez gara ados jartzen gauza guztietan.

Zer diozu independentziaz?

Ez dut uste garrantzi handiko kontua denik. Sami mugimendutik kanpoko jendea beti saiatu izan da biztanleria beldurtzen egunen batean independentzia eskatuko dugula esanaz. Ez dut uste estatu nazional bat izatea garrantzitsua denik. Ekonomia, informazioa eta aldaketa klimatikoak bezalako kontuak globalak dira orain. Ez dut uste mugak jartzea garrantzitsua denik eta ez dut ikusten zergatik beharko genukeen estatu bat.

Orduan zein da zuen helburu politikoa?

Autodeterminazio kontua da. Norvegia iparraldeko politikari guztiak sami estatu baten hain beldur badira, zergatik ez digute galdetzen zer nahi dugun? Sami nahiaren beldur direlako. Agian egunen batean jendea esaten hasiko da ez dugula muga hauekin bizi nahi eta horren beldur dira.

Zenbaterainoko elkarlana duzue sami legebiltzarren artean?

Sami Legebiltzar Kontseilua elkarlanerako dugu. Urtean bitan biltzen dira eta hiru urtean behin hitzaldi parlamentario bat eskaintzen dute, ditugun arazoak eztabaidatzeko. Nik Finlandiako eta Suediako sami lehendakariekin elkarlan berezia dut, nazioarteko elkarlana koordinatzeko.

Etorkizun hurbilera begira, zein dira zuen helburuak?

Helburu asko ditugu, eskubideei lotuak. Lur-eskubideekin borrokan jarraituko dugu eta arrantzarako eskubideak hobetu behar ditugu. Gas, petrolio eta mineralen kudeaketarako eskubideak ere garrantzi handia hartuko du hurrengo urteetan. Kulturari begira, berriz, ezer txarrik gertatzen ez bada behintzat, gure hizkuntzaren inguruko lana indartuko dugu. Etorkizuna baikor ikusten dut.

familiatakoa zen ere. Jantziaren luzerak, formak, burukoak eta batez ere, marren kopuru, kokapen eta konbinazioak eman izan dute informazio hori historian zehar. Kolore nagusiak funtzio estetikoak baino ez du.

Eskoletan bizi den egoera guztiz ezberdina da duela mende erdi bizi zenarekin alderatuta. Beren hezkuntza sistema Norvegia, Suedia eta Finlandiako legedietan guztiz zehaztua dago, herrialde bakoitzean era batera. Norvegiako hezkuntza sisteman, esaterako, samieraz

Oraindik ohikoa da bere abizena
 norvegiar itxurako batengatik aldatu
 zuen jendea ezagutzea, samitasuna
 ezkutatzear gain, lurak erosteko
 eskubidea lortzeko

ikasteko eskubidea onartzen da. Suediarrak ez ditu eskubideak zehazten, baina adierazpenek argi uzten dute sami ikasleek sami hezkuntza hautatzeko aukera dutela. Finlandian ere ez dira eskubideak aipatzen, legea obligazio edo betebeharretan zehazten baita. Hemen, ikasleek hezkuntzaren erdia behintzat samieraz jaso dezakete. Errusiako legedian, azkenik, ez da aipatu ere egiten samiek hezkuntza beren hizkuntzan jasotzeko eskubidea.

Egun, eskolak kulturaren biziraupenerako eta berriztape-



Ezkerrean, Kautokeino herrian jasotako hainbat irudi: -40°C-tara iristea ohikoa da neguan; behean, elur-oreinen artean (egun, %10 bizi da elur-oreinen zaintzaz); diskotekan hainbat herritar gátki jantzi tradizionalarekin; eta herriko Sami Eskola.



nerako motorrik garrantzitsuenetakoak dira. “Gure seme-alabek gure hizkuntza ikastea oso garrantzitsua da, honek biziraungo duela ziurtatu behar baitugu”, iritzi dio Kirsten A. G. Buyo Kautokeinoko irakasleak. Aipatu estatuetan hainbat eskola daude hezkuntza sami hizkuntzan ematen dutenak eta estatistikek erakusten dutenez, urtez urte gero eta ume gehiagok ematen dute izena eskola hauetan. Hala ere, kalitate oneko hezkuntza eskaini ahal izateko, beren hizkuntzan material gehiago behar dutela dio A. G. Buyok.

Sami eskoletako lehen belaunaldi honek behintzat ez du hizkuntza diskriminaziorik jasan. Izan ere, Tove Johansen ikertzaileak 1989an egindako elkarrizketetan ondorioztatu zuen helduentzako eskola garaiez hitz egitea “errepresio eta sufrimenduaz” hitz egitea dela. Garai haietan, sami askok seme-alabei beren hizkuntza ez erakustea erabaki zuten, etorkizunean arazorik izan ez zezaten. Antzeko arrazoiek bultzatuta aldatu zuten askok beren abizena. Oraindik ere ohikoa da bere abizena norvegiar itxurako batengatik aldatu zuen jendea ezagutzea. Samitasuna ezkutatzea ez zen horren helburu bakarra, lurrak erosteko eskubidea ere lortu nahi zuten. Ume haiek eskolan ez zuten beren iraganari buruz ezer ikasi, nortasuna galdu eta norvegiar bihurtu ziren, batez ere kostaldean bizi zirenak.

Hedabideak, hizkuntzaren normalizatzaile

Bi emakumeak erosketak egiten ari diren denda berean, ordainlekuaren atzealdean, hiru egunkari ezberdin har ditzake erosleak. Hiruetan Saapmiko gertaerak dituzte aztergai. *Sággat* astean bitan argitaratzen dute eta norvegiarrez da, 2.300 kopia ateratzen dituzte edizioko. Sami hizkuntzan idatzita dauden *Min Aigi* eta *Ássu* berriz, astean behin argitaratzen dira, edizioko 1.150 eta 1.050 kopiarekin, hurrenez hurren. Gutxi dira sami hizkuntzan irakurtzeko gai direnak eta horren ondorioz, egunkari formatuko astekariak kalera-tzen dituzte, dagoen irakurlegoa ez baita nahikoa harpidetza bidezko egunkari bat mantentzeko.

Hala ere, beren hizkuntzan idatzi eta irakurtzen ikasterik izan ez zutenek badute aukera informaturik bizitzeko. Norvegiako, Suediako eta Finlandiako telebista konpainiek hitzarmena sinatu zuten egunero 15 minutuz sami politikako azken orduaz aritzeko. Albistegia arratsaldean da eta emisioak Saapmi eremu osoa hartzen du. Berriak sami hizkuntzan direnez, ikuslea mugaren zein aldetan dagoen kontuan hartuz azpitu-luak dituzte norvegiar, suediar edo finlandieraz. “Gure ikerketek egunero 70.000 ikusle ditugula

Ole Henrik Magga, samien lehen lehndakaria eta samiera irakaslea “Soluzio bezala ez nieke gure sistema beste herri indigenei gomendatuko”

Gizon serioa dela antzematen zaio, 60 urteko esperientziak zaildua. “Samien Nelson Mandela” dela diote batzuek, baina bera ez dela inoiz kartzelara joan erantzuten du irribarrez. Norvegiako lehen Sami Legebiltzarreko lehendakari izan zen eta ondoren, Nazio Batuetako Indigenen Gaietarako Foro Iraunkorreko lehendakari. Egun samiera irakaslea da, baina interes handiz jarraitzen du sami politika.



menpe gaude. Garrantzitsuena falta zaigu: dirua eta legeak egiteko makineria.

Zein uste duzu dela konponbidea?

Hau ez behintzat. Ez nieke gure sistema beste herri indigenei gomendatuko, ez soluzio bezala behintzat. Negoziazio egoeran, guk duguna baino askoz urrunago iritsi behar da. Hau egoera idealetik oso urrun dago.

Nazio Batuen Indigenen Gaietarako Foro Iraunkorreko presidente ohia zara. Zer nolako garrantzia du indigenen arteko elkarlanak?

Ezinbestekoa da. Guretzat dena da. Bakarrik izan bagina, ez genukeen daukagun ezer lortuko. Elkarri laguntzen diogu eta gainera, oso garrantzitsua da nazioarteko presioa. Kanada, AEB, Zeelanda Berria, Australiako indigenen eta samion arteko elkarlana da giltza.

Zeintzuk dira sami kultura bultzatzeko erakunderik garrantzitsuenak?

Dudarik gabe, hizkuntza eta artearekin lan egiten duten erakundeak. Oso kezkatuta nago gaur egungo umeek ez dutelako guk ikasten genuen kultura bera ikasten. Hezkuntza, artisten jarduna eta hizkuntzarekin egindako lana da gure kulturaren giltza, eta hori bultzatu behar dugu.

Norvegiako autoritateekin Sami Legebiltzarra sortzeko negoziatzen ibili zen taldeko partaide izan zinen.

Modu batean bai. Norvegiako agintariak inoiz ez ziren samiokin negoziatzera iritsi, horren kontrakoa zirudien arren. Jende asko zegoen bakoitzak esaten zuena gogor defendatzeko prest, eta hor ez zegoen negoziatzerik. Gu gure argumentuekin joan ginen eta haiek esan ziguten: “Oso ondo, ikusiko dugu hemendik zer har dezakegun”.

Zenbaterainoko indarra du Norvegiako Sami Legebiltzarrek?

Aholkularitza boterea du. Ez daukagu legeak egiteko indarrak. Ez dugu diru sarrera propiorik, Norvegiako Gobernuak ematen digun diruaren

Nazio Batuetan indigenen eskubideak bermatzen dituen testua berriz ere atzeratu egin zen joan den azaroan. Zein uste duzu dela arrazoia?

Ziur nago AEB, Kanada, Zeelanda Berria eta Australiako gobernuak Afrikako gobernu horiei presioa egin dietela testua ez babesteko eta ezezko botoa emateko.

Zer nolako garrantzia du testu hau onartzeak?

Ikaragarritzkoa! Estatu gehienek ez dute legeetan indigenen eskubideak bermatuko dituen ezer. Nazio Batuek testua izenpetuko balute, estatuek legeen barruan babestu beharko lituzkete indigenak.

esaten dute”, baieztatu du Nils Johan Heatta Sámi Radioko zuzendari eta editore nagusiak. Halaber, umei eta nerabeei zuzendutako programazioa prestatzen ari dira.

Irratian ere badu txorikorik samierak. 1946an entzun zen lehen aldiz, asteen 15 minutuz. Norvegiar Telekomunikazio Korporazioaren erabakia izan zen. Gaur egun, 60 urte beranduago, astero 30 ordu baino gehiagoz eskaintzen da bertako hizkuntza eta lehen aipatu korporazioaren barruan Sami Irratiaren Atala dago, Karasjok herrian. Horrez gain, estatuan barreiatuta beste zortzi estudio lokal dituzte.

Bi egunkariak, sami irati nazionala eta telebistako albistegia hizkuntzaren eta kulturaren normalizazio prozesuan garrantzitsuak dira, baita hedabide independenteek jokatzen duten rola ere, “bai behintzat samiona bezalako demokrazia gazte batean”, gaineratu du Heattak.

Yoika, naturari abestuz

Yoika belaunaldiz belaunaldi, ahoz aho pasa den kantatzeko modua da. Naturako elementuei abesten diete samiek. Abestiek ez dute ez hasiera ez bukaerarik, eta naturako soinuak imitatzen dituzte. Beti doinu berarekin errezitatu behar dira eta bolumen aldaketak nabariak dira intentsitatean eman asmoz. Elurra, eguzkia, elur-oreina, ahatea, otsoa, hizkuntza, herria... dituzte kantugai (www.argia.com-en horietako zenbait dituzu entzungai). Historian zehar milaka izan badituzte ere, asko galdu egin dira, Eliza Katolikoak yoika deabruaren kantuarekin lotu baitzuen eta hau debekatu. Norvegia, Suedia, Finlandia eta Errusiak ere yoika debekatua izan dute duela 30 urte inguru arte.

Ante Mikhal adituaren esanetan, “pertsona bati egin dakiokeen oparirik baliotsuena da yoika. Nirea aitak egin zidan 15 urte nituela eta beti gogoratuko dut hark egin zidala”. Estimatu handiko oparia da norberaren yoika eta pertsonaren ezaugarriak azpimarratzen ditu, normalean gauza baikorrak. Hurrengo urteetarako, jende helduak dakizkien yoikak grabatu nahi dituzte, gal ez daitezen.

Henrik gaztea eta supermerkatuko emakumeak kultura indigena beraren parte dira. Urtean elur-oreinen zaintza exotiko, gákti jantzi, esku-langintza eta gauerdiko eguzkira mugatu den gutxietsitako kulturaren parte. Ia mende bateko zapalkuntzak mundua beste begi batzuekin ikustera behartu ditu samiak, baina etorkizuna begi onez ikusten dute. Diskrezio handiarekin eta zalaparta handirik gabe, beren kultura berreraikitzen ari dira, duela urte asko beraienak izan ziren eskubideak irabaziz. Pausoak haien aurrekoek egindako oinatzetan jarritz

doaz, bide berriak aurkitzeko beldurrik gabe. Irribarrea ezpainetan, “isilpeko iraultza” egiten ari direla diote sami askok. ■

<http://www.argia.com/argia-astekaria>
helbidean, gai honekin lotutako argazki gehiago, sami eskolei buruzko bideoa eta yoika abestien audioak.